



2013

**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**  
**Memoria Departamento Programa - GASTOS**

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
07. Lehendakaritza 07. <i>Presidencia</i>	05. Ibilgailuteria 05. <i>Parque Móvil</i>	120.401 Sailen Garraio Zerbitzua 120.401 <i>Servicio Transporte Departamentos</i>

Egitarauaren helburua da Ibilgailuen Atalak bere eginkizunak betetzeko egin behar dituen gastuei aurre egitea.

El programa tiene como objetivo atender los gastos originados en el ejercicio de sus atribuciones por la Sección de Parque Móvil.

Ibilgailuen Atalari zenbait ekintza jakin eta zehatz burutzeko agindu zaio, eta ekintza horiek bi multzo nagusitan sailka daitezke:

La Sección de Parque Móvil tiene encomendadas una serie de acciones concretas y definidas que pueden englobarse en dos grandes grupos:

1. Foru Aldundiko sailei euren jarduerak egiteko behar dituzten ibilgailuak ematea, eta aipatutako elementu mugikor horiek mantentzeko eta konpontzeko lanez arduratzea.
2. Zenbait kontratu zentralizatu (irradi-taxia, mezularitza, eta abar) egin daitezen bultzatzea, Foru Aldundiko sailen jarduera ahalbidetzeko.

1. Dotar a los Departamentos Forales de los vehículos que precisen para el desenvolvimiento de su actividad, así como atender a los mantenimientos y reparaciones de los citados elementos móviles.
2. Impulsar la ejecución de determinados contratos centralizados (radio-taxi, mensajería, etc) para posibilitar la actividad de los Departamentos Forales.

II. kapituluaren barruan sartuta daude ibilgailuak artatzeak sortutako gastuak (turismoak, lur orotako ibilgailuak, furgonetak...) baita beste sail batzuek eskatutako kanpoko kontratuen zerbitzuak ere: irradi-taxia, ibilgailuen alojera, sailarteko zerbitzua, ibilgailuak garabien bitartez lekuz aldatzea... Hala ere, mezulari-zerbitzua sail bakoitzak kudeatu eta abonatzen du.

Dentro del Capítulo II se contemplan los gastos originados por el mantenimiento de la flota de móviles (turismos, todo-terrenos, furgonetas...) así como los servicios de contratos exteriores solicitados por otros Departamentos: Radio-Taxi, alquiler de vehículos, servicio interdepartamental, traslado de vehículos con grúa etc. Sin embargo, el servicio de mensajería lo gestiona y abona cada Departamento.

Aipatu kapituluaren proposamena gehitu egiten da 2012. urtearekiko; hazkuntza honako aurrekontu epigrafeen bidez justifikatzen da: garraiorako materialaren konponketaren eta mantentze lanen gastu arruntak, eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko jarri beharreko diru kopurua. Hala eta guztiz ere, II. Kapituluaren gainerako sailek zenbatekoak epigrafe desberdinetan dituzte.

En este capítulo la propuesta se incrementa respecto al año 2012 justificándose dicho incremento en los epígrafes presupuestarios, donde se recogen los conceptos de gastos corrientes de reparación y mantenimiento de material de transporte así como el importe destinado al pago del impuesto sobre vehículos de tracción mecánica. No obstante, el resto de partidas del Capítulo II ve contenida su cuantía en otros conceptos recogidos en los diferentes epígrafes.